# 2004KO MARTXOAREN 31KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 31 DE MARZO DE 2004.

**Akta zenbakia:** 4/2004
**Bilera data:** 2004-03-31
**Bilera mota:** Ohiko osoko bilkura
**Deialdia:** Lehenengoa
**Ordua:** 16:30 – 17:50
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Bertaratutakoak:**
**Alkatea:** Florentino Ugalde Atxaga
**Zinegotziak:**
Maria Isabel Vaquero Montero
José Luis Aramendi Goikoetxea
José Maria Aldanondo Ugalde
Maria Ángeles Iriondo Múgica
Gaspar Esnaola Agesta
Mª Teresa Pagazaurtundua Ruiz
Hermenegildo González Morán
Consuelo Frutos González
José Guirado Novo
José Manuel Funes Rivas
Juan Maria Tomasena Alzuri
Mª Asunción Guerra Alonso

**Bitarteko idazkaria:**
Beatriz Garate Cortabarria

**Aztergaiak:**

1.- Aurreko aktak onartzea, bidezkoa bada.

2.- Alkatearen eta Herriko Gobernu Batzarraren ebazpenen berri ematea.

3.- Etxez-Etxeko laguntza zerbitzuaren araudiaren aldaketaren hasierako onarpena.

4.- Jacinto Albizu Achaga jaunak errauste plantarik ez- Arnasa Plataformaren ordezkari den aldetik eskatutako eskatzeko eskubidea.

5.- Galde-eskeak

**Acta nº:** 4/2004
**Fecha:** 31-03-2004
**Tipo de reunión:** Pleno ordinario
**Convocatoria:** Primera
**Hora:** 16:30 – 17:50
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento

**Reunidos:**
**Alcalde:** Florentino Ugalde Atxaga
**Concejales:**
Maria Isabel Vaquero Montero
José Luis Aramendi Goikoetxea
José Maria Aldanondo Ugalde
Maria Ángeles Iriondo Múgica
Gaspar Esnaola Agesta
Mª Teresa Pagazaurtundua Ruiz
Hermenegildo González Morán
Consuelo Frutos González
José Guirado Novo
José Manuel Funes Rivas
Juan Maria Tomasena Alzuri
Mª Asunción Guerra Alonso

**Secretaria interina:**
Beatriz Garate Cortabarria

**Orden del día:**

1.- Aprobación, si procede, de las actas anteriores.

2.- Conocimiento de resoluciones de Alcaldía y de la Junta de Gobierno Local.

3.- Aprobación inicial de la modificación del Reglamento de Servicio de Ayuda a Domicilio.

4.- Derecho de petición, presentado por Don Jacinto Albizu Achaga, en representación de la Plataforma ciudadana contra la incineradora "Incineradoras No-Arnasa".

5.- Ruegos y preguntas.

# 2004KO MARTXOAREN 31KO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 31 DE MARZO DE 2004.

**1.- Aurreko aktak onartzea, bidezkoa bada.**

Alkateak lehenengo gaia aurkeztu du, eta esan du 2003ko uztailaren 10eko, abenduaren 22ko, 2004ko urtarrilaren 15eko eta 28ko aktak onartu behar direla; eta era berean galdetu du ea inork baduen ezer esateko honen inguruan.

EBko zinegotzi Juan M. Tomasena Alzurik hartu du hitza, eta esan du 2004ko urtarrilaren 28ko udalbatzarrean hamabi zinegotzi zeudela eta hala ageri dela botazioetan, baina botoak zehaztean hamabi eman beharrean hamahiru ematen dutela. Beraz, 2004ko urtarrilaren 28ko akta zuzentzea erabaki dute.

Ez da eztabaidarik izan, eta Udalbatzak aho batez onartu ditu 2003ko uztailaren 10ean, abenduaren 22an eta 2004ko urtarrilaren 15ean egindako udalbatzarren aktak.

Aktak onartu ondoren, alkateak idazkariari eman dio hitza honek azal dezan aktei buruz egindako txostena. Idazkariak azaldu du akten inguruko txosten bat egin duela, aktek beraiek zer eduki izan behar duten Korporazioko kideei argitzeko asmoz; esan du txostenean aipatu dituen datuek agertu behar dutela. Korporazioko kideek emandako iritzien inguruan Toki araudiak honako hau ezartzen du: *emandako iritziak labur jasoko dira*; beraz, ez da bidezkoa batzarkideek esandako hitz guztiak sartzeko eskatzea. Bestalde, idazkariak esan du, batzarkideek testua ekarriz gero, hitzez hitzeko transkripzioa egiteko prest legokeela. Bukatzeko, idazkariak esan du, aktetan agertzeko nork adierazi duen ezin izan dela etorri eta nork ez, Udalbatzarrak zehaztu egin beharko lukeela nola eta zein eperekin adierazi behar duten etortzerik ez dutela.

**1.- Aprobación, si procede, de las actas anteriores.**

El alcalde ha presentado este punto señalando que hay que aprobar las actas del 10 de julio y 22 de diciembre de 2003, y del 15 y 28 enero de 2004; asimismo, ha preguntado si alguien tiene algo que comentar a este respecto.

Ha tomado la palabra el concejal de IU, Juan Mª Tomasena Alzuri para expresar que en el acta del Pleno del 28 de enero de 2004 estaban doce concejales presentes y así aparece en las votaciones, pero al desglosar los votos en vez de doce suman trece. Por lo tanto, se decide corregir el acta del 28 de enero de 2004.

No se ha producido ninguna discusión, y el Pleno ha aprobado de forma unánime las actas de las sesiones plenarias celebradas el 10 de julio y el 22 de diciembre de 2003, y el 15 de enero de 2004.

Tras aprobar las actas, el alcalde ha cedido la palabra a la secretaria para que explique el informe elaborado sobre las actas. La secretaria ha explicado que ha redactado un informe sobre las actas, a fin de aclarar a los miembros de la Corporación el contenido que deben reflejar las mismas; por tanto, señala que las actas deben contener los datos que se recogen en el informe, y que el Reglamento Local establece lo siguiente en torno a las opiniones expuestas por los miembros de la Corporación: *las opiniones expresadas se recogerán resumidamente*; por tanto, no es procedente que los miembros de la Corporación soliciten la inclusión de todas las palabras pronunciadas. La secretaria ha indicado que si los miembros de la Corporación aportan el texto, estaría dispuesta a transcribirlo literalmente; ha concluido su intervención señalando que, para que conste en acta el dato de los no asistentes y de los que han excusado su no

# 2004KO MARTXOAREN 31KO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 31 DE MARZO DE 2004.

asistencia, el Pleno debería concretar el modo y el plazo de antelación con el que deben excusar la no asistencia.

Alkateak hartu du hitza esateko bertan erabaki ahal dela, eta berak proposatu du udalbatzarra egin baino lehen, epea zehaztu gabe, telefonoz abisa daitekeela. Beste kide guztiak honekin ados azaldu dira.

Ha tomado la palabra el alcalde para expresar que pueden decidirlo ahora y ha propuesto que antes de la celebración del pleno, sin establecer un plazo concreto, se puede avisar por teléfono. Todos los demás miembros han mostrado su conformidad.

**2.- Alkatearen eta Herriko Gobernu Batzarraren ebazpenen berri ematea.**

2004ko urtarrilaren 23tik 2004ko martxoaren 25era bitarteko Alkatetza dekretuen berri eman zaie udal batzarkideei, deialdiarekin batera banatutakoena. Era berean, 2003ko abenduaren 23an, 2004ko urtarrilaren 15ean eta 29an eta 2004ko otsailaren 12an eta 26an Herriko Gobernu Batzarrak egindako bilkuren akten berri eman zaie udalbatzarkideei. Beraz, jakinaren gainean geratu dira.

**2.- Conocimiento de resoluciones de Alcaldía y de la Junta de Gobierno Local.**

Se ha dado cuenta a los miembros de la Corporación de los decretos de Alcaldía emitidos desde el 23 de enero de 2004 hasta el 25 de marzo de 2004, remitidos junto con la convocatoria. Asimismo, se ha dado cuenta de las actas de las sesiones celebradas por la Junta de Gobierno Local el 23 de diciembre de 2003, el 15 y 29 de enero de 2004 y el 12 y 26 de febrero de 2004. Por tanto, han quedado informados.

**3.- Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren araudiaren aldaketaren hasierako onarpena.**

Gizarte Ongizateko zinegotzi M. Angeles Iriondo Mugikak hartu du hitza, eta esan du gizarte langileak azaldu zuela zertan datzan hilaren 25eko Informazio Batzordean, eta, orain, hori onartu behar dela.

Horren ostean, Mikel Elosegi urnietarrak eskatu du azaltzeko zein den aldaketa hori; Gizarte Ongizateko zinegotziak Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren Araudiaren aldaketa irakurri du, hau da, 20. eta 22. artikuluak eta eranskina.

**3.- Aprobación inicial de la modificación del Reglamento de Servicio de Ayuda a Domicilio.**

Toma la palabra la concejal de Bienestar Social, Mª Angeles Iriondo Mugika para decir que en la Comisión informativa del día 25 la trabajadora social explicó esta modificación y que se trata de aprobarlo.

A continuación, un ciudadano de Urnieta, Mikel Elosegi pide que se explique en qué consiste esa modificación; la concejal de Bienestar Social ha leído la modificación del Reglamento de Servicio de Ayuda a Domicilio, que afecta a los artículos 20,22 y Anexo.

## 2004KO MARTXOAREN 31KO UDALBATZARRARAREN AKTA
## ACTA DEL PLENO DEL 31 DE MARZO DE 2004.

Alkateak bozkatzeko proposatu du; honako emaitza hau izan du:

Alde: 13 (6 EAJ-EA, 5 PSE-EE, 1 EB, 1PP)
Kontra: 0
Abstentzioak: 0

Ikusirik 2004ko martxoaren 25ean egindako Gizarte Ongizate, Osasun eta Emakumearen Saileko Informazio Batzordean hitz egin eta informazioa eman zela.

Gaia bozkatu ondoren, udalbatzarrak aho batez hartu du ondorengo

**AKORDIOA**

**Lehenengoa**.- Hasierako onespena ematea Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuaren araudiaren aldaketari, akta honetako Eranskinaren arabera, zeina espedientean jasota dagoen.

**Bigarrena**.- Hasierako onespena duen dokumentua informazio publikorako argitaratzea baliozko 30 egunetan GAOn agertuko den iragarki baten bidez, interesatuek aztertu eta udalbatzarrari erreklamazioak aurkezteko aukera izan dezaten.

El alcalde ha propuesto someterlo a votación, y el resultado obtenido ha sido el siguiente:

A favor: 13 (6 PNV-EA, 5 PSE-EE, 1 IU, 1 PP)
En contra: 0
Abstenciones: 0

Visto que en la Comisión Informativa de Bienestar Social, Salud y Mujer celebrada el 25 de marzo de 2004 se debatió e informó sobre este punto.

Tras la votación, la Corporación ha adoptado de forma unánime el siguiente

**ACUERDO**

**Primero**.- Dar la aprobación inicial a la Modificación del Reglamento de Servicio de Ayuda a Domicilio, según el Anexo adjunto a este acta, y que consta ya en el expediente.

**Segundo**.- Someter el documento de la aprobación inicial a información pública mediante anuncio publicado en el BOG durante el plazo de 30 días hábiles, a fin de que los interesados puedan analizarlo y puedan presentar al Pleno las reclamaciones que estimen oportunas.

**4.- Jacinto Albizu Achaga jaunak errauste plantarik ez- Arnasa Plataformaren ordezkari den aldetik eskatutako eskatzeko eskubidea.**

Gai honi hasiera emateko alkateak idazkariari eman dio hitza, azken honek gai honen inguruan egindako txostena azal dezan. Idazkariak azaldu du urtarrilaren 14an Jacinto

**4.- Derecho de petición, presentado por Don Jacinto Albizu Achaga, en representación de la Plataforma ciudadana contra la incineradora "Incineradoras No-Arnasa".**

Para abordar este punto, el alcalde cede la palabra a la secretaria, para que explique el informe elaborado sobre este asunto. La secretaria explica que el 14 de enero Don Jacinto

## 2004KO MARTXOAREN 31KO UDALBATZARRAREN AKTA
## ACTA DEL PLENO DEL 31 DE MARZO DE 2004.

Albizu jaunak, Arnasa plataformaren izenean, eskatzeko eskubidearen eskaera bat sartu zuela, eta hurrengo hau eskatu zuela:

*Urnietako Udalak bat egin dezala lehendakariak 2001eko urtarrilaren 22an sinatutako Garapen Iraunkorrerako Euskal Konpromisoarekin.*

*2004. urtean Urnietako Udalak diseinatu dezala Tokiko Agenda 21a herrirako.*

*2004. urtean Urnieta Udala sar dadila Tokiko Agenda honen eskualdeko garapenean, zeina jadanik sortua dagoen.*

Idazkariak jarraitu du esanez Eskatzeko Eskubidearen 4/2001 Lege Organikoari jarraiki egindako eskaera zilegia dela eta tramitatu egin behar dela hurrengo era honetan: Udalbatzarrak eskaera aintzat hartu eta eskatzaileari erantzun arrazoitua eman; bestalde, Udalbatzarrak eskatzailea dei dezake audientzia batera; tramitazio honek ez du esan nahi egindako eskaerak onartu behar direnik, baizik eta auzi horien inguruko erabakiak udalbatzarrak hartu beharko dituela. Idazkariak azaldu du, bestalde, Arnasa Plataformak sustatuta, hainbat herritarrek eskatzeko eskubidea aurkeztu dutela banan-banan; orain arte 258 eskatzeko eskubide banako sartu direla, Plataformak aurkeztutakoaren helburu berberarekin; beraz, kontuan izanik batetik, eraginkortasunaren eta herritarren zerbitzuaren printzipioak eta bestetik eskaera horiei guztiei erantzuteak administrazioa kolapsatuko lukeela, otsailaren 26an Herriko Gobernu Batzarrak honako erabaki hau hartu zuela:

Lehenengoa.- *Eskatzeko Eskubidea banan banan egikaritzeko aurkezturiko eskabide guztiak Errausketarik Ez-Arnasa Plataformak aurkezturiko Eskatzeko Eskubidearen eskaeraren izapidetza eta erantzunaren bidez bideratzea, eskatzen den objektua berdin-*

Albizu registró una solicitud de derecho de petición en nombre de la plataforma ciudadana Arnasa, solicitando lo siguiente:

*Que el Ayuntamiento de Urnieta se adhiera al Compromiso Vasco de Desarrollo Sostenible firmado por el Lehendakari el 22 de enero de 2001.*

*Que en el año 2004 el Ayuntamiento de Urnieta diseñe su programa de Agenda Local 21 de ámbito municipal.*

*Que en el año 2004 el Ayuntamiento de Urnieta se integre en el desarrollo de esta Agenda Local a nivel comarcal y que ya existe.*

La secretaria ha continuado diciendo que, en virtud de la Ley Orgánica 4/2001 de Derecho de Petición, es procedente la solicitud presentada y que debe tramitarse de la siguiente manera: el Pleno debe considerar la solicitud y dar una contestación razonada; asimismo el Pleno podrá convocar al peticionario en audiencia especial. No obstante, admitir a trámite dicha petición no significa acceder a las peticiones planteadas, sino que estas cuestiones deberán ser decididas por el Pleno de la Corporación. Por otro lado, la secretaria informa de que la Plataforma Incineradoras No-Arnasa ha impulsado la presentación por parte de los vecinos, uno por uno, del derecho de petición. A fecha de hoy, se han presentado 258 peticiones de derecho individual con idéntico objeto al presentado por la Plataforma. Así, teniendo en cuenta los principios generales de eficacia y servicio a los ciudadanos, así como el hecho de que tramitar todas esas peticiones individuales supondría el colapso de la Administración, la Junta de Gobierno Local, con fecha 26 de febrero de 2004, adoptó el siguiente acuerdo:

Primero.- *Canalizar todas las solicitudes de Derecho de Petición individual presentadas a través de la tramitación y contestación de la solicitud de Derecho de Petición presentada por la Plataforma Incineradoras No-Arnasa, puesto que el objeto de la petición es idéntico.*

## 2004KO MARTXOAREN 31KO UDALBATZARRAREN AKTA
## ACTA DEL PLENO DEL 31 DE MARZO DE 2004.

*berdina baita.*

Bigarrena.- *Jacinto Albizu Achagari, Errausketarik Ez-Arnasa Plataformaren ordezkari den aldetik, akordio hau jakinaraztea, Plataformak hartu den erabakia gainontzeko eskatzaileei jakinarazi diezaion*

Segundo.- *Comunicar el presente acuerdo a Jacinto Albizu Achaga, en representación de la Plataforma Incineradoras No-Arnasa, para que ésta comunique la decisión adoptada al resto de peticionarios".*

Bukatzeko idazkariak azaldu du berak Udalbatzarrari proposatu diona hurrengo hau dela:

Lehenengoa.- Onartzea, zilegi delako, Jacinto Albizu Achaga jaunak Errauste plantarik EZ-Arnasa plataformaren izenean aurkeztutako eskatzeko eskubidearen eskaera.

Bigarrena.- Eskaera hori tramitatzea, behar bezala erantzunez eta adieraziz zergatik onartu den edo ez den onartu eskaera hori.

Hirugarrena.- Banakoen eskatzeko eskubide guztien eskaerak bideratzea Errauste Plantarik EZ-Arnasa plataformak aurkeztutako eskatzeko eskubidearen tramitazio eta erantzunaren bidez, helburu berbera baitute.

Laugarrena.- Erabaki honen berri ematea Jacinto Albizu Achaga jaunari, bera baita Errauste plantarik EZ-Arnasa plataformaren ordezkaria.

La secretaria concluye diciendo que lo que ella propone al Pleno es lo siguiente:

Primero. Admitir, por procedente, la solicitud de derecho de petición presentada por Don Jacinto Albizu Achaga, en representación de la Plataforma Incineradoras No-Arnasa.

Segundo. Tramitar dicha petición contestándola debidamente e incorporando los motivos por los que se acuerda acceder a la petición o no hacerlo.

Tercero.- Canalizar todas las solicitudes de Derecho de Petición individual presentadas a través de la tramitación y contestación de la solicitud de Derecho de Petición presentada por la Plataforma Incineradoras No-Arnasa, puesto que el objeto de la petición es idéntico.

Cuarto.- Notificar el presente acuerdo a Don Jacinto Albizu Achaga, en representación de la Plataforma Incineradoras No-Arnasa.

Ondoren, alkateak hartu du hitza esateko eskatzeko eskubidearen barne hiru eskaera daudela eta lehenengo eskaerari dagokionez, hots, *Urnietako Udalak bat egin dezala lehendakariak 2001eko urtarrilaren 22an sinatutako Garapen Iraunkorreko Euskal Konpromisoarekin,* haiek ez dutela inolako arazorik akordio hori hartzeko; bigarren eta hirugarren puntuei dagokienez esan du sei udalek osatzen dutela udal talde 21a eta sei herrietako alkateak harremanetan daudela hitzarmena sei herriek sina dezaten, lau herrik sinatu dutela eta Lasarte eta Urnieta falta direla; orduan, bere garaian sinatu zuten hitzarmena

A continuación, ha tomado la palabra el alcalde para señalar que dentro del derecho de petición hay tres solicitudes, y que en cuanto a la primera, es decir, a la solicitud de que *el Ayuntamiento de Urnieta se adhiera al Compromiso Vasco de Desarrollo Sostenible firmado por el Lehendakari el 22 de enero de 2001,* que ellos no tienen ningún inconveniente en aprobar dicho acuerdo; en cuanto al segundo y tercer punto, el alcalde señala que la Agenda 21 está formada por seis municipios y que los alcaldes de esos seis municipios están en contacto para que los seis firmen el convenio, que cuatro ya lo han firmado y que faltan Lasarte

# 2004KO MARTXOAREN 31KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 31 DE MARZO DE 2004.

hautsi beharko litzateke eta beste bat egin sei herri horiek sar daitezen hitzarmen horretan. Bukatu du esanez datorren hilean gelditu direla sei herrietako alkateak biltzeko eta horretan daudela; orduan Batzarrak onartu beharko duen hitzarmena ezagutu baino lehenago, berari zaila egiten zaiola bigarren eta hirugarren puntuak orain onartzea.

y Urnieta; por tanto, comenta que se debería anular el convenio firmado en su día y que se debería suscribir uno nuevo, a fin de que participen los seis municipios. Ha concluido diciendo que el mes próximo se van a reunir los alcaldes de los seis municipios, y que la situación está así, y que por ello, le resulta difícil aprobar ahora el segundo y tercer punto, sin conocer antes el convenio que la Comisión va tener que aprobar.

Mª Isabel Vaquero Montero alkateordeak hartu du hitza esateko alderdi politikoaren izenean, eskatzeko eskubidea onartzen dutela, aurkezturiko lehenengo eskaera gaur bozkatzearen alde direla eta, bigarren eta hirugarren puntuei dagokienez, aurrekontuaren zirriborroan agertzen dela partida bat, baina haiek eskatzen dutela itxarotea bi puntu hauek onartzeko, hobe delako hitzarmena udalbatzarrera ekartzen dutenean erabakitzea.

Toma la palabra la teniente-alcalde Mª Isabel Vaquero Montero para decir que como grupo político aprueban el derecho de petición, que están a favor de que hoy se vote la primera solicitud presentada y que respecto a los puntos segundo y tercero, que en el borrador del presupuesto hay una partida para ello, pero que piden que se posponga la aprobación de estos dos puntos, pensando que es más conveniente esperar a que presenten el convenio al Pleno.

Ondoren PSE-EE taldeko bozeramailea den Mª Teresa Pagazaurtundua Ruizek hartu du hitza esateko haiek ere eskaera eskubideari baiezkoa esaten diotela eta gainera oso ondo iruditzen zaiela herritarrek eskatzea, hori guztia Agendaren espirituarekin bat datorrelako, baina esan behar duela PSE-EE taldeak mozio bat sartu zuela non puntu hauek eskatzen zituzten: batetik, lehendakariak sinatutako garapen horren konpromisoari baiezkoa ematea; bestea, Urnietan sor dezaten Agendak esaten duen espirituaren materalizazioa eta bestetik, haiek ez diotela inolako arazorik ikusten eskualdeko Agendari ere atxikipena ematea; hortaz, bere aldetik ez dagoela dudarik eta bozkatu nahi dutela. Gainera, haiek ez dakitela zergatik alkateak mozio hori ez duen sartu; beraz, haiek bozkatzeko ados daude, gaur bertan onartu daitekeela filosofia, gero bere materializazioa bere bidean joan dadin eta guztion artean egin dezaten.

A continuación, ha tomado la palabra la portavoz del grupo PSE-EE Mª Teresa Pagazaurtundua Ruiz, para señalar que ellos dicen sí al derecho de petición, y que además les parece muy bien que los ciudadanos lo soliciten, ya que todo ello es acorde al espíritu de la Agenda, pero que también ha de decir que el grupo PSE-EE presentó una moción solicitando los siguientes puntos: por una parte, decir sí al compromiso del desarrollo firmado por el lehendakari; y, por otra parte, la materialización del espíritu de la Agenda que vayan a elaborar en Urnieta; asimismo, señala que ellos no ven ningún inconveniente para adherirse a la Agenda comarcal; por tanto, no tienen ninguna duda y quieren que se someta a votación. Además, ellos no saben por qué el alcalde no ha incluido esa moción; por tanto, ellos están a favor de que se vote, ya que hoy mismo se puede aprobar la filosofía para que luego su materialización vaya por buen camino y puedan acometerlo entre todos.

## 2004KO MARTXOAREN 31KO UDALBATZARRARAREN AKTA
## ACTA DEL PLENO DEL 31 DE MARZO DE 2004.

Horren ondoren, EBko zinegotzi Juan M. Tomasena Alzurik hartu du hitza, eta esan du denek onar ditzaketela aurkeztutako hiru puntuen espiritua eta letra; izan ere, alkateak aipatutako hurrengo bilera horren helburuetako bat da aurreko akordioa etetea eta eskualdeko beste akordio batean sartzea. Horrez gain esan du erabat identifikatzen dela eskatzeko eskubidearen eskaerarekin, ados dagoela gaur onartzearekin eta aurrera eramateko' urrats praktikoak ematearen alde dagoela.

A continuación toma la palabra el concejal de IU, Juan Mª Tomasena Alzuri para decir que el espíritu y letra de los tres puntos presentados es asumible por todos porque uno de los objetivos de la próxima reunión que ha comentado el Alcalde es la posibilidad de que dejen el acuerdo que tienen con anterioridad y se incorporen a un acuerdo comarcal. Sigue diciendo que él está totalmente identificado con la solicitud de derecho de petición, que está de acuerdo con que se apruebe hoy y con que se den los pasos prácticos para llevarlo a cabo.

Azkenik, PPko zinegotzi M. Asuncion Guerra Alonsok hartu du hitza, eta esan du berak onartzen duela Arnasa plataformaren izenean aurkeztutako eskatzeko eskubidea, eta gainera uste du herritarrei entzun behar zaiela; eskatzen dituzten hiru puntu horiek direla eta, ez du arazorik ikusten botazioa egiteko; azken batean, bi eta hirugarren puntuek berretsi egiten dute Udala orain arte garatzen ari denaren konpromisoa.

Por último toma la palabra la concejal del PP, Mª Asuncion Guerra Alonso para decir que ella aprueba el derecho de petición presentado en nombre de la Plataforma Arnasa y además cree que la voz de los ciudadanos hay que escucharla; en cuanto a los tres puntos que se solicitan ella no ve ningún problema a que se proceda a la votación, que los puntos dos y tres suponen ratificar el compromiso de lo que hasta ahora se está desarrollando desde el Ayuntamiento.

Alkateak hartu du hitza esateko hirugarren puntua onartzen badute kontraesanetan erori ahal direla, zeren eta posible da gaur onartzea eta gero sei herriak ados ez jartzea hitzarmen hori sinatzeko. PPko zinegotzi Mª Asunción Guerra Alonsok erantzun dio, eta esan du beraiek ez dutela ez duten hitzarmenik sinatuko, baizik eta eskualdean sartzearen alde bozkatuko dutela lan egiteko, hau da, Buruntzaldean Agenda 21a egin ahal izateko Urnietako Udalak duen asmoa.

Toma la palabra el alcalde para decir que si aprueban el tercer punto pueden caer en una contradicción, ya que es posible aprobarlo hoy y que luego los seis municipios no lleguen a un acuerdo en la firma de ese convenio. Le responde la concejal del PP, Mª Asuncion Guerra Alonso para decir que ellos no van a votar el Convenio que no tienen, sino lo que votan es integrarse en esa comarca para trabajar, esto es, la intención que existe como Ayuntamiento de Urnieta para que se pueda realizar la Agenda 21 en la comarca de Buruntzaldea.

Horren ostean, Jacinto Albizu jaunari eman zaio hitza, eta aurkeztutako idatziaren espiritua zein den azaldu du: Arnasak eskaera bat egin dio Urnietako Udalari, Garapen Iraunkorreko Euskal Konpromisoarekin bat egin dezan; eta badirudi ez dagoela horretarako arazorik; bigarren

A continuación se la da la palabra a Don Jacinto Albizu; éste ha expuesto que el espíritu del escrito presentado consiste en que Arnasa hace una petición para que el Ayuntamiento de Urnieta se adhiera al Compromiso Vasco de Desarrollo Sostenible, que parece que no hay

# 2004KO MARTXOAREN 31KO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 31 DE MARZO DE 2004.

puntuan eskatzen dute Urnietako Udalak –bere eskuko erakundea baita, ezaugarri eta eskumen propioak dituena– diseinatu dezala bere Tokiko Agenda 21eko programa, eta aldi berean, beste aurrerapauso bat bezala, 2004an Urnietako Udala sar dadila eskualdeko Toki Agendaren barruan; eskualdeko horrek gerora aldatuko balitu hartutako akordioak, hirugarren puntuan jotzen da haiei lotuko zaiela. Jarraitu du esanez Toki Agenda 21aren espiritua dela herritarrei parte hartzeko aukera ematea, eta horregatik, logikoa dela eskualdean ere herritarrek eta beste elkarte batzuek parte hartzea.

problema; que el segundo punto habla de que el Ayuntamiento de Urnieta, porque es un ente propio con características y competencias propias, diseñe su programa de Agenda Local 21 y a su vez, y como un paso más, que en el 2004 el Ayuntamiento de Urnieta se integre en el desarrollo de esta Agenda Local a nivel comarcal; si ese nivel comarcal está pensando en variar posteriormente los acuerdos que puedan tener, se entiende en el tercer punto que se adhiere a esos cambios. Continúa diciendo que el espíritu de la Agenda Local 21 consiste en que los ciudadanos puedan participar y por eso sería lógico que en ese ámbito comarcal también los ciudadanos y otras asociaciones puedan tomar parte.

Alkateak puntu hauen espirituaren botazioa egitea proposatu du, eta emaitza honako hau izan da:

Alde: 13 (EAJ-EA 6, PSOE-EE 5, EB 1, PP 1)
Kontra: 0
Abstentzioak: 0

El alcalde propone someter a votación el espíritu de estos puntos, y el resultado ha sido el siguiente:

A favor: 13 (6 PNV-EA, 5 PSOE-EE, 1 IU, 1PP)
En contra: 0
Abstenciones: 0

Gaia bozkatu ondoren, udalbatzarrak aho batez hartu du ondorengo

Tras la votación, el Pleno adopta de forma unánime el siguiente

**AKORDIOA**

**<u>Lehenengoa</u>**.- Urnietako Udalak bat egitea lehendakariak 2001eko urtarrilaren 22an sinatutako Garapen Iraunkorreko Euskal Konpromisoarekin.

**<u>Bigarrena</u>**.- 2004. urtean Urnietako Udalak diseinatzea Tokiko Agenda 21a herrirako.

**<u>Hirugarrena</u>**.- 2004. urtean Urnieta Udala sartzea Tokiko Agenda honen eskualdeko garapenean, zeina jadanik sortua dagoen.

**ACUERDO**

**<u>Primero</u>**.- Que el Ayuntamiento de Urnieta se adhiera al Compromiso Vasco de Desarrollo Sostenible firmado por el lehendakari el 22 de enero de 2001.

**<u>Segundo</u>**.- Que en el año 2004 el Ayuntamiento de Urnieta diseñe su programa de Agenda Local 21 de ámbito municipal.

**<u>Tercero.-</u>** Que en el año 2004 el Ayuntamiento de Urnieta se integre en el desarrollo de esta Agenda Local a nivel comarcal

## 2004KO MARTXOAREN 31KO UDALBATZARRARAREN AKTA
## ACTA DEL PLENO DEL 31 DE MARZO DE 2004.

y que ya existe.

Bozketaren ondoren, EBko zinegotzi Juan M. Tomasena Alzurik hartu du hitza, eta esan du, idazkariak egindako erantzuteko txostena dela eta, bera ez datorrela bat banakoen eskatzeko eskubidearen eskaerak bideratzeko proposamenarekin. Izan ere, herritarrek banako eskaera batzuk egin dituzte, denek batera gauza bera eskatzeko; beraz, gehiegikeria iruditzen zaiola Arnasa plataforma bideratzaile gisa, bozeramaile gisa hartzea; izan ere, herritarren mugimendu bat da, eta ustez ez dauka bitarteko materialik, eta erantzutea beraiek bideratu behar dituztela eskaera horiek logika guztietatik kanpo dago. Jarraitu du esanez ohartzen dela administrazioan sortzen duen arazoaz, baina erantzuna erabat Plataformatik kanpo dagoen administrazioko bide batetik eman behar zaiela. Idazkariak erantzun dio esanez proposamen bat dela, ez dela behartzen Arnasa plataforma gainerakoei erantzutera, eskaerak bideratzea dela kontua, Arnasak aurkeztu baitzuen pertsona juridiko gisa eta Arnasak berak banatu baitu manifestu bat urnietarrei eskatuz gauza bera aurkeztu eta eskatu dezatela, eskaeren helburua berbera dela.

